

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Nahiz eta gure ama izan, anaia gaztea eta biok alegratu egin ginen bere heriotzarekin, sufritzekotan hobe baita hiltzea, eta amak asko sufritzen baitzuen. Aita eta Natalio, ordea, nahiko eroriak ibili ziren harez geroz, eta aitak ezin zuen kendu gogotik, eta beti amaren kontuak ekartzen zituen hizpidera, eta batzuetan hala ematen zuen, bera ere nahastu egingo zela. Eta Natalio zaharra sukaldeko lanetara jarri zen amaren partez eta horrela ibili ginen garai hartan, ahal bezala, noski...*

*Puntu honetan eteten da aurreneko aldiz haria. Ez dakit, ziur, zein burutazio ibili zituen narratzaileak etendurak dirauen bospasei minutuetan; baina badirudi bere oroitzapenekin segitu zuela, zentzu handirik gabe, bere bizitzako istorioan aurrera eta atzera eginez.*

*Baina maistra irakurtzen ari zen egun hartakoa, eta adi zegoeneko aurpegia jartzera behartu zuen bere burua:*

*“Gizon batek sei zaldi zeuzkan. Bakoitzeko 1.500 pezta hartuz saldu zituen hiru. Beste bi bakoitzeko 1.300 pezta hartuz. Azkenekoari, berriz, hanka hautsi zitzaion, eta haragitarako utzi behar izan zuen. Galdera: denetara 7.300 pezta jaso zituela kontuan harturik, zenbat diru eman zion harakinak?”*

*“Zergatik hautsi zitzaion hanka zaldiari?”, pentsatu zuen morroiak. Liburu txoro hark ez zuen ezer argitzen.*

*“Zenbat eman zion harakinak, Manuel?”, galdetu zion maistark handik piska batera.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Ez zen hori okerrena. Okerrena zen jendeak –hamburgotar aspertuak– galderak egiten zizkiotela espaloitik, zein da leku hori, nongo arbolak dira horiek, eta orduan Menscher gizarajoak –gizarajoa jendearen maliziaz ohartzen ez zen partez– “Mediterranioan edo Greziako kale zoko hartan zinez, benetan, animaz bezala gorputzez egon izan balitz bezala erantzuten ziela, italieraz edo grekeraz mintzatuz behin baino gehiagotan” (azpimarraketa kazetariarena da, noski).*

*Hori zen okerrena, pintorea Hamburgoko xelebretako bat bihurtu zela, eta hori horrela izanik –kazetariari ematen diot oster hitza– “inor ez zela ohartu gizon hark errealitateari buruz erakusten zuen desatxikimenduak ekar zezakeenaz”. Ekar zezakeena: bere heriotz tragikoa, azkar esateko.*

.....

*Saiatu zen, halere, ibilitako bidean atzera egiten eta,soinekoak ahaztuz, portuan lanean ari zeneko bizimodura itzultzekotan egon zen. Baina bere barrenean agintzen zuen indarrak ez zion aukera hori eskaini nahi izan. Aitzitik, trenbideko karrilen artetik ibiltzen hasteko eskatu zion.*

*Eguberrietarako gutxi falta zela Bavieratik idatzi zioten. Margareteren heriotzak ez zuela hilketa baten posibilitatea ametitzen, esaten zion hango jujeak.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*“Nork galeraziko dik ohean geratzea, Klaus?” galdetu zion bere barrenetik, Alexanderrek. Alexander hilda zegoen, edo hori esaten zioten behintzat: hilda zeramatzala urte asko; Elba ibaiaren ihi artean gelditu zela, itota, hara eskolako opor batzuk pasatzera joanda. Baina berak ez zion inori sinesten. Berak bazekien Alexanderreke zuela bizilekua aldatzea besterik egin. Egun hartaz geroztik, bere barrenean bizi zen, eta hitzegin egiten zion aldian behin; une garrantzitsuetan, bereziki. Bera poztu egiten zen Alexanderren ume ahotsa sentitu zuenean, eta, gehienetan behintzat, aintzat hartzen zituen haren esanak. Zeren asko maite baitzuen, asko.*

*“Inork ez, Alexander,” erantzun zion irribarrez. Instanter, gorputza jiratu eta lotara jarri zen.*

.....

*“Nire irudipena da doktoreak Ucayali igo zuela, eta ondorenean ezkerretara desbideratu zela, Unine aldera. Beraz, ashaninka artean egon behar du orain. Eta, seguru asko, ondo. Ashaninkak jende ona dira. Ez diete erasorik egiten viracocha baketsuei. Bakean joaten zaizkien gizon zuriei, esan nahi dut”, argudiatu zuen, bere aldetik, Cesar Calvo gure maisuak, oihaneko gauza guztiak irakasten zizkigun Iquitoseko gizon jakintsuak.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*‘Hemen gelditu beharko duzu, Manuel. Oso eguraldi txarra egiten du.’*

*Morroiak ez zion erantzun, agian erdi lotan zegoelako.*

*Badakit zer egingo dugun. Koltxoi bat ekarriko dugu sukaldera eta bertan egingo duzu lo. Oso epel egongo zara hemen.’*

*Maistrari, une hartan, iristen zitzaizkion bere bihotz etsiaren esanak, eta susmatzen zuen egiten ari zenaren zuhertasun eza; baina bere baitako indar haiek askoz ozenkiago mintzatzen zitzaizkion, eta hurbilagoetik, belarrira ia, eta ez arduratzeko kontseilatzen zioten; sukalde hartaz kanpo gelditzen zen guztiak –Albaniako auzuneak, bere kostaldeko herriak, munduak berak– ez zuela aintzakotzat hartzea merezi.*

*Izutu egin zen, eta nik presa hartu nuen gertatutakoaren grabetasuna arintzen. Argi dardarti bati begira egon nintzela erori aurretik, eta hori izan zen arrazoia. Eta elizari antzemandako xehetasunak ere adierazi nizkion: hango ilunbea, zuloetan sartuta zeuden santuak, erretorearen jazkiei zerien usaina. Berak bibliotekako liburuak seinlatu zitkidan.*

*‘Izpiritua hemen dago, Esteban. Ez elizaren ilunbe horretan.’*

*‘Aita, gauza bat kontatu behar diot,’ hasi nintzen dudaka. Ezinezkoa zitzaidan barruan neukan kontraesana denbora gehiagoz ezkutatzea. Erabaki bat hartu nahi nuen Maria Vöckel-i buruz.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*‘Indioek ez digute ezer esan nahi. Saiatu naiz gerlariekin hitz egiten, baina mutu gelditzen dira nire aurrean. Eta laguntzaile bezala jarri diguten andre zaharrak ere ez du hitzik egiten, irribarre bakarrik,’ keجاتu zen Cesar Calvo, Iquitoseko gizon ona.*

*‘Badakite zerbait, seguru nago,’ zioen Laurak. Baina etsita.*

*Ez zen guk espero genuen bidai bukaera. Guk arriskua espero genuen, eta heriotza ere bai agian. Baina Lauraren senarrari buruzko berriren bat ere espero genuen horren truk. Eta alderantziz gertatzen zen. Inbitatu maitagarri batzuk bezala tratatzen gintuztela, baina ezer ere esan gabe.*

.....

*Lehenengo postala bere enpresako zuzendariari idatzi zion: ezkontzea erabaki zuela bat-batean, eta horregatik huts egin zuela lanera. Eta horregatik zegoela, noski, Le parisien garesti hartan, Ez zekiela ziur noiz itzuliko zen ogi banaketara, baina egoteko lasai, itzuliko zela halako batean.*

*Klauserik bere anaia txikiaren barrekkak sentitu zituen bere barnean, eta barre egin zuen berak ere. Ezagutzen zuen zuzendaria eta imajina zezakeen haren haserrea letra haiek irakurtzean. Horregatik idazten zion, noski, bere onetik aterata ibil zedin egun osoz.*

*‘Hil egin behar huen, Klaus, ‘ entzun zuen bere barnean.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Wei Lie Deshangek hasperen egin zuen, eta ixilune bat. Min egiten zion gobernariaren arrotasuna gogoan hartze hutsak. Nola agindu zezakeen gizon hark Kiang'Si bezalako huri batean? Zergatik ematen zioten huritarrek amore? Berak ezin zezakeen halakorik onartu.*

*'Etxeko guztiei, errebelatu zirelako, heriotza eman zieten. Ni, berriz, artean oso gazte nintzelako-edo, morroi bihurtu ninduten, eta irlara eraman. Hamabost urtez geroz egon naiz morroi Aga Kubalaren palazioan, eta lotsa horrek asko sufriarazi dit. Halere, denbora ez zait lanturuetan joan, baizik eta mendekua prestatzen. Egunik egun aritu naiz nire mendekuaren oinarriak jartzen.*

*Eta Wei Lie Deshangek, are eta makurtuago jarritz, zituen asmo haiekiko onespena eskatu zion Siddarta bere jainkoari.*

*'Indioek ez digute ezer esan nahi. Saiatu naiz gerlariekin hitz egiten, baina mutu gelditzen dira nire aurrean. Eta laguntzaile bezala jarri diguten andre zaharrak ere ez du hitzik egiten, irribarre bakarrik,' keجاتu zen Cesar Calvo, Iquitoseko gizon ona.*

*'Badakite zerbait, seguru nago,' zioen Laurak. Baina etsita.*

*Ez zen guk espero genuen bidai bukaera. Guk arriskua espero genuen, eta heriotza ere bai agian. Baina Lauraren senarrari buruzko berriren bat ere espero genuen horren truk. Eta alderantziz gertatzen zen. Inbitatu maitagarri batzuk bezala tratatzen gintuztela, baina ezer ere esan gabe.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Obabakoak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Philippe Auguste Bloy-ri min egiten zioten hautsita zeukan hankak eta saihetseko urradura sakon batek; baina, halere, mina ez zen nahikoa pitzadura ondoko hotzak eragiten zion loa uxatzeko. Eta, horregatik, ez zen ohartu, jada azken loaren menera zegoela, goitik bota eta bere anorak gainera eroritako sokez; ezta, geroxeago, soka haietatik beragana jaitsi eta aurrean jarri zitzaion gizonaren presentziaz ere. Alabaina, gizonak linterna piztu bat inguratu zion aurpegira, eta Philippe Augustek, garrasika ustekabeagatik, begik zabaldu zituen erabat.*

*Itsututa, zerbait esan, bere bozkarioa adierazi nahi izan zuen. Baina ahotsak, aurreneko aldi hartan, ez zion obeditu.*

.....

*Izutu egin zen, eta nik presa hartu nuen gertatutakoaren grabetasuna arintzen. Argi dardarti bati begira egon nintzela erori aurretik, eta hori izan zen arrazoia. Eta elizari antzemandako xehetasunak ere adierazi nizkion: hango ilunbea, zuloetan sartuta zeuden santuak, erretorearen jazkiei zerien usaina. Berak bibliotekako liburuak seinlatu zizkidan.*

*‘Izpiritua hemen dago, Esteban. Ez elizaren ilunbe horretan.’*

*‘Aita, gauza bat kontatu behar diot,’ hasi nintzen dudaka. Ezinezkoa zitzaidan barruan neukan kontraesana denbora gehiagoz ezkutatzea. Erabaki bat hartu nahi nuen Maria Vöckel-i buruz.*